

Haurreskolak Partzuergoko 2018-2019 baremazio- birbaremazio eta izen emate deialdia

DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA:
2018ko AZAROAREN 20tik 2018ko ABENDUAREN
4ra (BIAK BARNE)

Gogoratu: edozein dokumentazio aurkeztuta ere, **derrigorrezkoa da ESKAERA-ORRIA** betetzea, **NANaren kopia** aurkeztea, **eranskinak sinatzea** eta dokumentazio guztiaren **kopia konpultsatuak** aurkeztea (edo **originalak eta kopiak**). **Presentzialki** (**Haurreskolak Partzuergoko egoitzan, Zuzenean bulegoetan**) edo **gutun ziurtatuaren** bidez aurkeztu daitezke eskaerak.

GARRANTZITSUA ➡ DEIALDIA ONDO IRAKURTZEA GOMENDATZEN DIZUEGU:

http://www.haurreskolak.eus/lista_noticia?id_noticia=435



Haurreskolak Partzuergoko 2018-2019 baremazio-birbaremazio eta izen emate deialdia

2017ko urriaren 4tik 2018ko azaroaren 5era arteko merituar baloratuko dira (biak barne):

- ✓ **Haurreskolak Partzuergoan egindako lanagatik:** 0,01 puntu egun bakoitzeko (3,97 puntu gehienez).
- ✓ **Eskola pribatuetan egindako lanagatik:** 0,005 puntu egun bakoitzeko (1,985 puntu gehienez).
- ✓ **Baremazio-birbaremazio epean lortutako titulu berriak** (ikasketa ofizialak, deialdian jasota daudenak).



Haurreskolak Partzuergoko 2018-2019 baremazio- birbaremazio eta izen emate deialdia

1. ERANSKINA: IZEN EMATE ETA ESKABIDE-ORRIA

- Dokumentazio berria, ikasketak, kanpoko lan esperientzia gehitu edota lanaldia edo zonaldea aldatu nahi denean bete beharreko eranskina da.
- Hautagai berriek izena emateko bete beharreko eranskina da.

2. ERANSKINA: AITORPEN ARDURATSUA, ADIN TXIKIKOAREN BABES JURIDIKOAREN BAIMENA

- Hautagai berriek bete beharreko eranskina da. Dokumentua aurkezten ez duen edo sinatzen ez duen hautagaia ordezkoen zerrendan *ez erabilgarri* egongo da.

3. ERANSKINA: ORDEZKARITZA BOTEREA EMATEKO ORRIA (BERRIA)

- Hautagaia ez den pertsonari hautagaiaren izenean dokumentazioa aurkezteko boterea ematen duen eranskina.



Haurreskolak Partzuergoko 2018-2019 baremazio- birbaremazio eta izen emate deialdia

HAUTAGAI BERRIEN IZEN EMATEA ETA BAREMAZIOA:

- **Izena emateko gutxieneko dokumentazioa:** Haur Hezkuntzako Goi Mailako Teknikari heziketa zikloa, Haur Hezkuntzako gradua edo diplomatura eta hizkuntza eskakizuna (EGA edo parekidea) derrigorrezko eskakizunak dira. Dokumentu guztiak konpultsatu behar dira (edo originala eta fotokopia aurkeztu), eta NAN kopia ere auzeratu beharko da.

- **Barematzeko bestelako dokumentazioa:** aurkeztutako ikasketen espediente akademikoa, bestelako ikasketen tituluak (baremazio deialdian jasotzen direnak) eta kanpoko lan esperientzia (lan bizitza eta enpresa ziurtagiriaren bitartez).

- Eskaera aurkeztea eta helbidea:

➡ **Presentzialki (Haurreskolak Partzuergoan zein Zuzenean bulegoetan):** aurkezten dituzun dokumentu GUZTIEN 2 kopia eraman, kopia bat entregatzeko eta bestea frogagiri gisa gordetzeko (entregatu izanaren zigiluarekin). Hautagaia ez den pertsona batek dokumentazioa eramaten badu, 3. eranskina gehitu beharko da hautagaiaren NANaren eta boteredunaren NANaren kopiekin.

➡ **Posta ziurtatu bidez:** 1. eranskinaren bi ale aurkeztu eta *Correoseko* bulegoan data-zigilua jartzeko eskatu, bat enpresara bidaltzeko eta bestea frogagiri bezala gordetzeko. Ahal izanez gero, aurkezten dituzun dokumentu guztien frogagiria gordetzea gomendatzen dizuegu. Helbidea:

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA
Otaola Hiribidea 29, Jaizkibel eraikina 1
20600 EIBAR



Haurreskolak Partzuergoko 2018-2019 baremazio- birbaremazio eta izen emate deialdia

BIRBAREMAZIOAN ZER EGIN DEZAKET?

- **Zonaldeak eta jardunak aldatu:** 1. eranskina bete eta NANarekin batera aurkeztu.

- **Ikasketak gehitu:** birbaremazio epean titulazio ofizial berriak lortu badituzu (deialdian jasota daudenak). 1. eranskina bete eta tituluen kopiak aurkeztu, NANarekin batera.

- **Haurreskolak Partzuergoko lana:** ofizioz baloratuko du enpresak.

* *Salbuespena: Ordezkoen Araudiko [5.5. puntuan](#) jasota dagoen babestutako egoeraren baten egon den hezitzaileak (zaintzengatik aldi baterako etena eskatu izanez gero edota lan eskaintza bati uko egin izanez gero: haurdunaldiarekin edota aitatasunarekin zerikusia duten kasu batzuetan, lan istripu edo gaixotasun profesionalekin zerikusia duten kasuetan...) beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du (1. eranskina eta lan bizitzarekin batera) baremazioan dagokion puntuazioa gehitzeko.*

- **Kanpoko lan esperientzia:** 1. eranskina bete eta lan bizitza, enpresa ziurtagiria eta NANarekin batera aurkeztu.

***Gogoratu: dokumentuen kopia konpultsatuak aurkeztu, edo originalak eta kopiak.**



Haurreskolak Partzuergoko 2018-2019 baremazio- birbaremazio eta izen emate deialdia

DATA	PROZESUA
2018/11/20- 2018/12/04 (biak barne)	ESKAERAK AURKEZTU ETA IZEN EMATEKO EPEA http://www.haurreskolak.eus/lista_noticia?id_noticia=435 <i>*I., II. eta III. eranskinak</i>
2019/02/28	BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK PUBLIKATU
2019/03/01- 2019/03/15 (biak barne)	ERREKLAMAZIO EPEA
2019/05/03	BEHIN BETIKO ZERRENDAK PUBLIKATU
2019/05/06	ZERRENDA BERRIAK INDARREAN SARTU
2019/05/03- 2019/06/03	GORAKO HELEGITEA AURKEZTEKO EPEA
2019ko ekaina bukaera	GORAKO HELEGITEEN EBAZPENA

